Prestakuntzarako kontratua	Praktiketako kontratua
Langabezirako ez da kotizatzen eta ez da prestazio ekonomiko hori jasoko.	Onura guztiak daude.

En cuanto a la **cotización**, las empresas que celebren contratos para la formación o en prácticas con trabajador@s con discapacidad, tendrán derecho a una reducción del 50 por 100 de las cuotas empresariales de Seguridad Social previstas para estos contratos.

El empresari@ **informará** a l@s trabajador@s **sobre la existencia de puestos de trabajo vacantes**, con el fin de garantizarles las mismas oportunidades de acceder a puestos permanentes que los demás trabajador@s. Esta información podrá facilitarse mediante un anuncio público en un lugar adecuado de la empresa o centro de trabajo. Los convenios colectivos establecerán medidas para facilitar el acceso efectivo de est@s trabajador@s a la formación profesional continua, para mejorar su cualificación y favorecer su progresión y movilidad funcionales.

Hay que referirse al **certificado** que se emite al finalizar el periodo de contrato de formación o de contrato de prácticas. En el caso de los

Al cierre:

¿Se avecinan modificaciones en la anunciada reforma laboral en relación al acceso al mercado laboral de los jóvenes?

La actual situación económica y el aumento del desempleo, que ha afectado especialmente a los jóvenes, ha abierto un debate público sobre la posibilidad de crear una nueva modalidad contractual específica para este colectivo. Por una parte, a mediados de febrero de este año 2010, el Pleno del Congreso de los Diputados rechazaba una iniciativa del Partido Popular que proponía un nuevo contrato temporal con una duración de 9 meses a 3 años para menores de 30 años que accedieran a un primer empleo o llevaran dos años como desempleados con importantes bonificaciones públicas durante su vigencia. Poco después, la CEOE lanza a los medios de comunicación una nueva propuesta de contrato laboral juvenil, el contrato al que podíamos llamar **“el contrato sin-sin”** porque se anunciaba como una modalidad sin cotizaciones sociales, sin indemnización por despido, y sin cobertura, por tanto, de las principales prestaciones sociales como el desempleo. Ante el rechazo social, la propia CEOE se desdice de su anuncio.

Por ahora, el Gobierno español insiste en que el desempleo juvenil y la manera de reducirlo es uno de los temas fundamentales a negociar con los interlocutores sociales, tal y como consta en el documento que presentó el 5 de febrero a los sindicatos y organizaciones empresariales. Recientemente, el 12 de abril, ha presentado públicamente un nuevo documento de trabajo en el que concreta alguna de las medidas anteriores. Dentro de las actuaciones para favorecer el empleo de los jóvenes, se aborda la posible modificación de los contratos formativos, pero sólo respecto al contrato para la formación, no para el contrato en prácticas. Como en cualquier reforma laboral, se plantea una de cal y otra de arena, y así entre las medidas que afectan más directamente al trabajador, podemos destacar, por una parte, la ampliación de la edad máxima del trabajador para la celebración del contrato de los 21 a los 24 años, y por otra, la mejora de su salario (en el segundo año de vigencia se equipararía al salario mínimo interprofesional sea cual sea la jornada empleada en la formación teórica) y sobre todo, como

medida altamente positiva, el reconocimiento por fin a estos trabajadores de la contingencia de desempleo.

En relación a los posibles cambios en este tipo de contrato que se dirigen como incentivos para las empresas, es de reseñar la eventual exención total de cotizaciones sociales durante toda la vigencia del contrato y la exención de la organización y del coste de la formación teórica para las empresas de menos de 50 trabajadores.

Pero más preocupante nos parece el anuncio de un programa extraordinario de empleo para los jóvenes de entre 16 años y 24 años que carecen de titulación profesional o cuya titulación educativa es inferior a la ESO. En el documento citado se alude a un programa público de formación y empleo en el que se combinaría la enseñanza o formación teórica personalizada **con las prácticas no laborales** en empresas. Estas prácticas se compensarían económicamente tanto a las empresas como a los/as trabajadores/as, a quienes se les otorgaría una beca. Decíamos que la medida es preocupante porque supondría generalizar para un segmento de la población juvenil una figura no laboral - las becas - cuando hasta ahora ya existen programas públicos de empleo y formación subvencionados (como las escuelas taller y las casas de oficios) que cubren este espacio de formación y empleo por medio del contrato laboral para la formación. Creemos que la medida abocaría a estos jóvenes a que su primera experiencia laboral sea la oferta de unas prácticas de trabajo en empresa **sin contrato laboral** y, por tanto, sin derechos de esta naturaleza. ¿No es una manera de encubrir el que llamamos **“contrato sin-sin”** bajo otra fórmula?

Marta Arrue Medizabal

Profesora de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social en la E.U. de Relaciones Laborales de la UPV/EHU

Bekak eta lan kontratuak: mugak argitzen

Becas y contatos de trabajo: delimitando las fronteras



XVI. Promozioiko tituludunak, beka berdez apainduririk, diplomak banatzeko ekitaldian (2007/08ko Lan Harremanen Ueko txostenetik hartuta)

1. SARRERA - INTRODUCCIÓN

Jatorriz, “beka” oihal-xingola edo banda bat da, koloreen arabera tituludunaren ikasketak identifikatzen dituena (esate baterako, gorria da Zuzenbideari dagokiona eta horia, berriz, Medikuntzarena). Gaur egun, hala ere, beka edo banda hauek tuna-taldeetan edo unibertsitate-ospakizun formaletan baino ez dira erabiltzen.

Bestetik, beka hitza, zentzu zabalean, ikaslea bera (bekaduna) izendatzeko erabili izan da, eta hortik lerratu da gaur egun duen adierarik zabalenera: ikerketak edo ikasketak burutzeko emandako diru-laguntza. Baina bekak mota askotakoak izan daitezke, ez baitago araudi komun eta bakarra berauentzat.

2. BEKEN ZEHAZTAPENA – CARACTERIZACIÓN DE LAS BECAS

Batzuetan, beka lortzen duen ikasle edo ikertzaileak ez dio inolako zerbitzurik eman behar beka eman dionari (beka-emaileari) edo honek adierazitako hirugarren bati. Horrelakoak dira,

esate baterako, unibertsitatean ikasketak egiteko eman ohi direnak. Beka eskuratzeko badira bete beharreko baldintza batzuk (nota minimoak, errenta ekonomiko maximoak, eta abar), baina ezer gehiagorik ez. Horrelako bekek ez dute zer ikusirik lan kontratuekin.

Beste beka mota batzuen bidez formazio praktikoa edo ikertzeko trebezia lortu nahi da, baina gaitasun praktiko horiek eskuratzeko eta ikaslea lanbide horretan trebatzeko benetako ekoizpen-erakunde batean barneratu behar da. Beka hauetan heziketa teorikoa ez da funtsezkoena, eta batzuetan, egon ere ez dago. Aldiz, lanbide-prestakuntza da garrantzitsuena, eta hori praktikaren bidez lortzen da. Horrela, prozesu horretan, ikasleak, prestazio edo zerbitzu bat ematen dio beka-emaileari. Hori dela eta, beka hauek askoz hurbilago daude lan-kontratuetatik, parteek zerbitzuak eta diru kopuru bat elkar trukutzen dituztelako.

Hala ere, badira desberdintasunak beka eta lan kontratuaren artean.

Lehenik eta behin, esan dugunez, beka hauen helburua gazteen prestakuntza eta heziketa da, eta ez da, beraz, helburu bakartzat lana eta zerbitzuak trukatzeko duen tresna, lan-kontratuan gertatzen den bezala. Zerbitzuak formazioa lortzeko ematen dira, ez beka ordaintzeko. Enpresaren ikuspuntutik zerbitzuaren bidez agian bekaren kostua konpentsatuko da, baina ez da zertan kostuen oreka berdindu behar (Auzitegi Gorenaren –AG- 1998.07.07ko epaia). Horrela, teoriarik gutxienez, bekadunaren eta beka-emailearen arteko harremana bekadunaren aldekoa izan behar da.

Bigarrenaz, hau ere esanda dagoenez, beka, ikasketak edo ikerketak egiteko diru-laguntzak dira, eta ez dira zerbitzuak ordaintzeko (Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren –JAN- 2009.06.2ko epaia). Ez dago lotura bekaren eta egindako zerbitzuen artean. Zerbitzuak eta diru-laguntza, biak, bekadunak prestakuntza lor ditzan bideraturik daude.

Hirugarrenez, lan-kontratuan ez bezala, emandako zerbitzuak edo lanak ez dira barneratzen enpresaren ondarean (Auzitegi Gorenaren 1988.04.13ko epaia), ez baitira lanak zentzu hertsian, formazio praktikoaren ekintzak baizik. Bekadunak emandako zerbitzuak interes handikoak badira enpresarentzat, orduan bekatik urruntzen gara.

Laugarrenez, bekari lotutako zerbitzu-prestazioarekin ez da lan-esperientzia hutsa lortu nahi, edozein lan egitean eskuratzen dena, baizik eta lanbide konkretu baten gaitasun praktikoak. Horregatik, bekaren zerbitzuak ezin dira nolana hikoak izan, titulazio horren praktika lortzeko egokiak direnak baizik.

Guzti hau esanda, juridikoki, beka dohaintzak direla ikusten da. Lan-kontratuak, aldiz, trukatzeko kontratuak dira, elkarrekiko obligazioak sortzen baitituzte. Horregatik, doktrinak, beka adiskidetasun edo borondate oneko lanak bezala ikusten ditu eta ez ditu lan-kontratutzat jotzen, azken hauen ezaugarriak falta baitaizkie. Hala ere, Gizarte Segurantzaren eraginetarako, 63/2006 Errege Dekretuak prestakuntzako ikertzaile bekadunak langileekin parekatzen ditu, langabeziaren prestazioan izan ezik (beste beka egoeratan ez dago halako parekotasunik).

3. BEKEN ETA HEZIKETA-KONTRATUEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK DIFERENCIAS ENTRE LAS BECAS Y LOS CONTRATOS DE PRÁCTICAS

Bekak heziketarako kontratuetatik (prestakuntzarako kontratuak eta praktika-kontratuak) bereizi behar dira, nahiz eta azken hauetan ere hezkuntzako edukia egon. Oro har, heziketako lan-kontratuetan bi helburu daude batera, langileak prestakuntza eskuratzea baina baita ere lana eta soldata trukatzeko. Aldiz, arestian esan dugunez, bekan hezkuntza helburu bakarria dago, ez besterik. Desberdintasun hauek hobeto ulertzeko hurrengo hau jakin behar da:

- Bekadunek ez dute dagokien formazioa bukatu, baina **prestakuntzarako kontratuak** langileak ez du inolako formaziorik.
- **Praktika-kontratuak** langileak titulu bat izan behar du eta bekan, aldiz, titulua eukitzea ez da ezinbestekoa.

Beken eta **praktika-kontratuak** arteko muga bat, orduan, ikasleak ordura arte lortu behar izan duen ikasketa maila da. Bekadunak ikasleak izan behar dira, hau da, oraindik hezkuntza prozesua bukatu gabeak. Hori da, adibidez, 63/2006 Errege Dekretuak, prestakuntzako ikertzaileen estatutua onartzen duenak, nolabait ezartzen duen zedarrria bekadun eta lan-kontratudunen artean. Ikertzaile lan-kontratudunak formazioa ia bukatarik duenez, berak ematen dituen zerbitzuak onuragarriak dira erakundearentzat. Bekadunak ematen dituen zerbitzuak, aldiz, ez, formazioa osatu gabe delako.

Ezaguna denez, profesio jakin batzuetan (abokatutzan, ingeniartzan, edo ikerkuntzan bertan, adibidez), lanbide-gaitasunak eskuratzeko mugarririk ez da gradua, gradu-ondoko hezkuntza ere beharrezkoa baita. Hauetan orduan, nahiz eta unibertsitate titulua izan, hezkuntza-prozesua ez dago bukatuta eta masterrak egiten diren bitartean beka egin dezake formazio osatzeko. Horrela, zenbait lanbidetan (bereziki, abokatutzan) “pasante” figura erabili izan da, ikasketak bukatu eta gero, laguntzaile gisa kontratua duenak bere lehen lanbide-esperientzia izan dezan. Beste garai batzuetan, maisuari laguntzea lanbide baten praktika barneratzeko era ohikoa zen. Egun, prozesu hau lan kontratuaren bidez egin daiteke (baita sozietate-kontratuaren bitartez ere, partearen nahien arabera, legeak aukera hori onartzen duen neurrian¹).

¹ Esate baterako, abokatutzan bi aukera hauek erabili daitezke.

Edonola ere, teorian gauzak argi badaude ere, eta **bekak** eta **lan kontratuak** bi egoera erabat desberdinak izan beharko balira ere, praktikan, gauzak askoz ilunagoak dira. Bekarioak (gaztelerazko hitz arrunta erabiliz), lantoki askotan, azken langilerik xumeenak bilakatu dira, figura hau gain-ustiapenaren ikur bihurtu delarik. Lan merkatuan sartzeko prozesu luze horretan, beka lehenengo urratsa da gazte askorentzat. Dirudienez,



Txiste grafiko honetan ondo argi islatzen da bekarioaren egoera arrunta

bekadunak lan-esku merkearen sinonimoak izatera etorri dira, lanegun osoa egiten baitute 300/500 €ren truke gehienez jota (praktika-kontratu baten bidez kobratuko beharko luketenaren erdia, gutxi gora behera). Lan-eskaintza batzuetan beka eta praktika-kontratuak berdintzat jotzen dira, gauzak are goibelduago jarritz.

Zentzu honetan, eta sindikatuek salatu ohi dutenez, Espainian 200.000 tituludun daude bekadun gisa arituz, eta portzentaje handi batean, horren atzean lan kontratuak ezkututzen dira. Jurisprudentziak berak hauen lekukotasunak ematen ditu, adibidez, 171/2005 Konstituzio Auzitegiaren epaiak 10 urteko etengabeko harremana aurkezten du non lan kontratuak, kontratu administratiboak eta beka nahasten ziren.

Gauzak horrela, beharrezkoa da bestelako argibide praktikoak ematea **lan kontratuak** eta **bekak** bereizteko. Lehenengo eta behin, beka deitzeak ez du ezabatzen lan kontratu izatearen aukera, izen bat edo beste emateak ez baitu

errealitatea aldatzen². Horrela, bekaren azpian aurkeztutakoa, lan kontratutzat joko da, baldin eta horren ezaugarriak baditu. Bekak, erakunde publikoek nahiz hezkuntza erakundeek sortutakoak izan daitezke edo enpresarekin egindako hitzarmen edo paktu baten barruan kokatu ohi dira³, edo, azkenik, enpresak berak antolatutakoak izan daitezke. Edozein kasutan, paktuetan, kontratuetan eta egintza edo arau administratiboetan egindako hori lan-kontratu ez dela aurkeztea, ez da nahikoa. Aldiz, lan kontratu izango da horren ezaugarriak gertatzen badira (2008.05.29ko AGaren epaia eta 2007.03.29ko AGaren epaia). Are gehiago, AGaren 2005.01.22ko epaiak dionez, lan harremana bekaren itxuraz mozorrotzea lege-iruzurra da, eta ondorioz estaldura nulutzat joko da, eta ezkutatuko lan kontratuak eragin osoak izango ditu.

Bigarrenez, Jurisprudentziak ondoko egoeretan jo izan ditu beka lan kontratutzat:

- Bekadunak ez egotekotan, zerbitzu horiek langile arruntek egin behar balituzte (Madrileko JANaren 61/2006 epaia).
- Bekadunak egindako prestazioak enpresaren zerbitzu arruntetan kokatzen badira (2008.05.29ko AGaren epaia).
- Bekadunen ordutegia eta lanaldia enpresa horretako langileen bezalakoa bada, inola bereizketarik gabe (AGaren 2006.04.04ko epaia).
- Bekadunak hartzeko, lanbide horretan esperientzia izatea eskatu bada (2008.05.28ko AGaren epaia).
- Bekadunak ematen dituen zerbitzuak bere prestakuntzarentzat beharrezkoak ez badira, eta, aldiz, enpresarentzat bete beharrezkoak badira, lan kontratuaren aurrean egongo gara (2007.05.27ko AGaren epaia).
- Emandako zerbitzuak ez badute lotura zuzena ikaslearen formazioarekin (Euskadiko JANeko 2008.04.22ko epaia eta 2005.11.22ko AGaren epaia).
- Langile arruntak bekadunaren bidez ordezkatzeari, esate baterako, langileen opporraldia betetzeko bekadunak kontratu

² Euskadiko JANaren 2004.07.06ko epaiak dionez lan kontratu edo beka dagoen erabakitze emandako *nomen iuris* edo izen juridikoaz ez da kasurik egin behar, baizik eta harremanaren edukia da funtsezkoena.

³ Hori da, adibidez, 1497/1981 Errege Dekretuak sortu zuen aukera. Arau horren bidez unibertsitateak enpresa eta bestelako erakundeekin akordioak sinatu ahal dituzte, ikasleek praktikak izan ditzaten. 1845/1994 Errege Dekretuak arautu zuenez enpresarekin Hezkuntza-lankidetzako programak egin ahal dira ikasleek ikasketen kredituen erdia eginak badituzte.

direnean (Euskadiko JANaren 2009.06.2ko epaia⁴).

- Bekaduna tutore baten zaintzarik gabe aritzea (Euskadiko JANaren 1299/2005 epaia⁵).

Hirugarrenez, eta laburbiltzeko, esan dezakegu, zenbat eta etekin zuzenagoa izan enpresarentzat bekadunak egindako prestazioarekin, orduan eta lan kontratuaren antza handiago izango duela harreman horrek (Madrileko JANaren 61/2006 epaia). Aitzitik, zenbat eta prestazioa eta titulazioaren artean lotura txikiagoa izan, orduan eta beka itxura gutxiago izango du (2007.05.27eko AGaren epaia).

Beka eta baita ere prestazioarekin den beka egokiak badira ere, arauen bidez lan kontratutik mugak zehaztea beharrezkotzat jotzen dugu. Zentzu honetan, Zientziaren Lege-proiektuak bere eremuan, hau da, ikerkuntzan ezartzen du ikertzaileen zerbitzua lan kontratuaren bidez egingo dela, nahiz doktoretza aurrekoa izan. Gure iritziz neurri bat irregulartasunak ekiditearren hitzarmen kolektiboan bekadunen tope ezartzea litzateke eta baita ere adieraztea bekadunek zer nolako lanak eta zerbitzuak egin ditzaketen eta, are garrantzitsuagoa, zeintzuk ez. Beste bat beka-aldia topea ezartzea izan daiteke eta ordu kopuru maximoa ezartzea ere komenigarria dirudi.

Ez genuke amaitu nahi, honelako egoeretan gure unibertsitateak izan duen papera aipatu gabe. Izan ere, behin baino gehiagotan UPV/EHUK bultzaturiko sasi-beken atzean epaileek lan harremana ikusi dute; bai Unibertsitatearen gerizpean beste enpresaren zerbitzu-beketan⁶, bai Unibertsitatean bertan zerbitzuak emateko

⁴ Honetan, beste epai askotan bezala (2009.02.17ko, 2008.04.22ko, 2007.07.2ko, 2007.04.04ko, 2005.12.28ko, 2004.07.20ko Euskadiko JANaren epaietan, besteak beste), banketxe berberak egindako bekaren azpian, lan kontratua ezkututzen zela onartu zen. Beka guztiak UPV/EHUREN akordioaren babesean egindakoak ziren. Normalki, kontratuok, udako oporraldiak direla eta bulego txikiengan langileak ordezkatzeko egiten ziren. Azpimarratu behar dugu sasi-bekak jarraitu dira, nahiz eta lehenengo epaiak irmoak izan.

⁵ Tutorearen beharra orokorrean ez dago araututa baina batzuetan dagokion araudian horrela erregulatu izan da. Horrela, behar denean ez egoteak lan kontratuaren aldeko susmoa zabaltzen du. Tutorearen papera araturik dago, esate baterako, UPV/EHUREN Beken Erregelamenduaren 12 artikuluan.

⁶ Euskadiko JANaren 2007.07.2ko eta 2008.07.08ko epaiak aipatu ahal dira adibide gisa, bietan Unibertsitatearen gerizpean banketxe birekin egindako beka lan harremantzat jo zen.

direnean⁷ (Ikasleentzako Argibide Zerbitzuan edo Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Sareko Informatika Zentroetan, esate baterako). Egia esan, Auzitegi Gorenaren azken 4 epaietan non beka lan kontratutzat jo diren, Unibertsitate publikoak ziren beka emaileak eta zerbitzu hartzaileak.

Mikel Urrutikoetxea Barrutia

Lan Zuzenbide eta Gizarte Segurantzako irakaslea
EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan

Profesor de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social en la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales de la UPV/EHU

⁷ Besteak beste hurrengoak ekarri ditugu hona: Euskadiko JANaren 2004.07.20ko, 2005.05.24ko, 2005.11.2ko, 2006.09.12ko eta 2007.09.11ko epaiak.



Sarai Bilbatuarekin elkarrizketa (Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako ikasle ohia)

GAZTELAN: Zein motatako erakundeetan egin dituzu praktikak?

Sarai Bilbatua: Gobernuz Kanpoko Erakunde (ONG) batean. Zehazki, beharrezan daudenak gizarteratu eta laguntzeko elkarte batean. Batez ere drogamenpekotasuna dutenekin eta kalean bizi direnekin egiten dute lan.

Zergatik erabaki zenuen praktikak egitea?

Hirugarren kurtsora iristean argi nuen praktikak egingo nituela. Batez ere bi arrazoiengatik. Lehenengoa, teorikoki ikasi duguna praktikan jartzea oso garrantzitsua ikusten nuelako. Askotan azterketarako bakarrik ikasteko ohitura txarra dugu eta ikasitakoa segituan ahazten da. Baina behin praktikan jartzen duzula, askoz errazagoa da denboran zehar gogoratzea. Bigarren arrazoia, lan mundua ezagutzen hasteko sekulako aukera zela ikusten nuelako. Eta kurrikuluma osatzeko gaur egun ezinbestekoa da.

Nola baloratuko zenuke egin duzun lana?

Askatasun eta partehartze handia eskaini zidaten, eta karrerarekin zerikusia zuten gauza asko ikusi eta ikasi nituen. Horrelako aukera bat ondo aprobetxatuz gero, lanaren balorazioa oso positiboa izaten da. Nik oso ondo aprobetxatu nuen eta oso gustura geratu nitzen egindako lanarekin.

Zertarako balio izan dizu praktiketan aritzeak?

Lan mundua gertutik ikusteko, karrerako teoria praktikan jartzeko, jende berria ezagutzeko, niretzeko ezezaguna zen GKE-en (ONG) mundua ezagutzeko... Oso esperientzia aberatsgarria izan da benetan!



Entrevista con Iñigo Azcona (Ex - alumno de la E.U. de Relaciones Laborales, y actual instructor de prácticas)

GAZTELAN: ¿Cuál ha sido tu itinerario formativo en relación con la labor profesional que desempeñas?

Iñigo Azcona Barbed: En 1992 nació nuestro Despacho profesional en Bilbao (c/ Rodríguez Arias 12,1º) donde inicié mi experiencia laboral en el mundo de la asesoría a empresas y particulares. Al mismo tiempo que trabajaba en el Despacho obtuve los títulos de:

- Técnico Especialista en Administración y gestión empresarial (1995)
- Diplomatura en Relaciones Laborales de la UPV/EHU (1996-1999)
- Licenciatura de Derecho UPV/EHU (2000-2005)

Soy graduado social colegiado en el Ilustre Colegio de Graduados Sociales de Vizcaya, y abogado en ejercicio en el Ilustre Colegio de Abogados de Vizcaya. Además, desde abril de 2008 soy miembro de la Asociación Española de Asesores Fiscales (AEDAF). He publicado artículos en revistas del Derecho, como "El Graduado", y en portales de noticias jurídicas. También he realizado diversas colaboraciones con la Universidad del País Vasco, que en 2009 me concedió, a propuesta de la Escuela de Relaciones Laborales, la "Venía Docendi" para la realización de actividades formativas como colaborador honorífico - instructor.

¿Qué valoración das a que exista la posibilidad de realizar un periodo de prácticas en alternancia (en un centro de trabajo externo a la universidad)?

Entiendo que es la mejor forma de plasmar realmente los conocimientos adquiridos en la carrera y así asentar las bases, para que el día de mañana, sea más fácil la experiencia en el mercado laboral.

¿Y en concreto para los estudios de Relaciones Laborales?

En el mundo del Derecho, y concretamente en el Derecho Laboral y de la Seguridad Social, se producen cambios legislativos constantes que requieren de importantes reciclajes, para estar al día con nuestros clientes. El desarrollo de unas buenas prácticas para un/a alumno/a de la Escuela de Relaciones Laborales incrementaría sus

conocimientos y practicidad a la hora de resolver un litigio.

¿Cuál ha sido tu experiencia como estudiante en este sentido?

Muy positiva al igual que dura, por la dedicación y la constancia diaria. La realidad es que empecé desde abajo y en función de mis estudios, del trabajo día a día y de la experiencia con los clientes, he conseguido realizarme como profesional.

¿Y en concreto, durante tu estancia como estudiante de la Escuela de Relaciones Laborales de la UPV-EHU?

Como antes he mencionado, alterné los estudios en la Escuela de Relaciones Laborales (turno de tarde) mientras a las mañanas trabajaba en el Despacho. Fue una bonita etapa, pero también muy dura. Entraba a las 08:30 de la mañana y salía a las 13:30. Comía rápido y a las 15:00 ya estaba en la universidad. A la salida volvía al Despacho, y a la noche, a estudiar un poco cada día.

¿En la actualidad cuál es la motivación principal que te lleva a ofertar prácticas en alternancia en tu empresa?

Siempre me gustó la docencia y quiero transmitir mis conocimientos y experiencias profesionales a aquellos alumnos que me demuestren ganas reales de aprender, y que puedan así plasmar sus conocimientos académicos.

¿Cuáles son los principales aspectos positivos que encuentra tu empresa de esta relación?

Es una relación recíproca, donde el/la alumno/a aprende y pone en práctica los conocimientos adquiridos durante su diplomatura y la empresa recibe un plus de ayuda en la gestión diaria.

¿Cómo valoras al alumnado procedente de la E.U. Relaciones Laborales que ha realizado prácticas en tu empresa?

Por lo general, es un alumnado con muy buenos conocimientos en el derecho laboral y de la seguridad social, pero que precisa matizar esos conocimientos en la vida real y así observar el derecho desde todos sus campos.

II Idazketa lehiaketa (2010)ko sariduna, EUSKARA kategorian Trabajo ganador del II Concurso de Redacción (2010) en la categoría de EUSKARA

LAN-BALDINTZAK HISTORIAN ZEHAR

Aurkibidea:

1. Esklabutzatik morrontzara	25
2. Industrializazioa eta langile-kontzientzia...	26
3. Gaurko egoera: hobetu beharra	26
4. Krisi ekonomikoa eta langabezia	27
5. Ondorioak.....	27
6. Bibliografia.....	27

Begien bistakoa den arren, esan beharra dago: lana asko aldatu da historian zehar. Ez soilik erabiltzen diren tresnei dagokienez, baizik eta –eta hori azpimarratzekoa da- langileen eskubideei eta horrekin lotutako aspektuei dagokienez ere bai, hau da, lanaldiari, segurtasun-eskaerei, gutxieneko soldatei eta abarrei dagokienez.

Beti egon da lan egin beharra. Animaliek ere lan egin behar dute eguneroko janaria lortzeko, eta gure arbasoek –neandertalek eta australopitekoek kasu- gogor lan egin behar zuten egunero bere taldea elikatzeko. Baina guk hemen ez dugu lan horretaz hitz egingo, gaur egun egin behar dugun lana ez baitago lotuta biziraupen soilarekin, nahiz eta azken xedea hori izan: bizitzeko behar duguna lortzeko baliabideak lortu. Idazlan honetan, berriz, beste motako lanaz ari gara, gizarte-behar bati erantzuteko helburu nagusia duen horretaz, hau da, gure gizartea aurrera joan dadin behar beharrezkoa den lanaz mintzatuko gara.

Baina, esan bezala, lana ez da beti gaur bezalakoa izan, eta beti ez da soldata baten truke egin, antzina lan-antolaketa oso bestelakoa baitzen.

1. Esklabutzatik morrontzara

Gizartea hobetzea edo garatzea helburu zuen lehenengo lan-mota Egipto Kristo aurreko 3200. urtean. Nilo ibaiari esker, kultura eta gizarte egiptoarrak garapen handia lortu zuen. Emari handikoa zela eta, Nilo ibaian zehar merkantzia asko garraiatu ahal ziren leku batetik bestera, eta, era berean, egiptoarrek asmatu-rik ureztatze-

sistema berritzaileak ezarri ziren bere ertzetan. Bi faktore horiek eragin zuzena izan zuten Egiptoko aberastasunean eta, nekazaritza eta merkantzien salerosketa garatu baitziren Nilo zehar, eta asko izan ziren etekinak lortu zituzten nekazari eta saltzaileek. Baina aberastasun-banaketa ez zen guztientzako berdina, fortuna gutxiagoko pertsonak baitziren, esklaboak alegia.

Esklaboek gau eta egun lan egiten zuten eta ez zuten inolako eskubiderik, inor ez zen beren ongi-izateaz arduratzen eta, bat hiltzen zenean, beste batek bere lekua hartzen zuen, makina baten pieza bat balitz moduan. Esklabo horien lanari esker, enperadoreen aintza goraiatzeko piramide erraldoiak eraikitzen ziren; horretarako dimentsio handiko harriak garraiatu behar zituzten esklaboek zama-animaliak balira bezala, hori guztia zartada krudel eta seguru asko mingarriek lagunduta. Aisialdia, segurtasuna edo soldata zer zen ez zekiten langile egiptoar horiek.

Egiptoarrek bezala, erromatarrek antzera antolatzen zuten lana, lan gogorrenak esklaboen gainean oinarritz. Erromatar inperioa zabalagoa zela eta, eskulan gehiago zuten erromatarrek, menperaturiko lurraldeetako hiritarrak esklabo egiten zituzten-eta. Baina, azken finean, berdina zen Egipto eta Erromako esklaboen egoera: animalien bizitza-egoera eta horren truke zigorrak besterik ez.

Erdi Arora salto eginez, esan beharra dago ez zela aldaketa handirik gertatu lanaren antolaketari dagokionez, garai horretan ere askok lan egiten zuten, baina enperadore baten menpean egin beharrean, errege batek zapalduta egiten zuten. Erregeari edo noble bati eman behar zioten lanaren emaitza langileek; horiek ez ziren esklaboak, jopuak edo morroiak baizik: itxuraz libre, baina azken finean, esklabo, erregeak ezarritako zergak ordaintzeko lan egiten zutenak, atsedendaldi barik, eguzkia ateratzen zenetik ilundu arte. Hori guztia janari eta lan egiteko txoko baten truke.

Gizarte horietan guztietan, lanaren banaketa ezberdintasunean oinarritzen zen, askok lan egiten zuten, gutxien zeukatenek eta okerren bizi zirenek,

gutxi aberasteko. Lan egitea sufritzea zen (Bibliaren arabera, horixe izan zen gizakiaren zigorra bekatu egin ondoren: “zure izerdiarekin lortuko duzu eguneroko ogia” esan omen baitzion Jainkoak, eta ideia hori nagusi zen Erdi Aroan). Esklaboek, morroiek ez zuten eskubiderik, ezta horrekin antzik zuenik ere.

Baina mendeetan egoera hobera jo zuen, asko kostata bazen ere.

2. Industrializazioa eta langile-kontzientzia

Gizarteak aurrera jarraitu zuen, eta industrializazio-garaira heldu zen gizakia. Gauza asko aldatu ziren, poliki poliki izan bazen ere. Industrializazioaren hastapenetan, lantegien jabeek lanaldi luzeak betetzera behartzen zituzten langileak (haurrak ere haien artean), ez zegoen segurtasun-neurririk eta soldatak oso baxuak ziren, baita lan egiteko baldintzak kaskarrak ere. Barrakoietan metatuta, ia atsedenaldirik ez zuten lantegiko “morroi” berriek. Askeak ziren, baina askatasuna gozatzeko astirik eta indarririk ez. Gaixotasunak ere ugari ziren, baina ez zegoen mediku-zerbitzurik eta karitatearen menpe geratzen ziren eriak edo hildakoen familiak.

Baina langileek beren egoera txarraren kontzientzia hartu zuten, eta jabeek egiten zutenaren bidegabekeria jabetu ziren ere bai. Nagusien tiraniaren aurkako mobilizazioen bidez, eskubide batzuk eskuratzen joan ziren langileak. Lanaldia murriztea (hasierakoa 15 ordutakoa zen, gaur egunekoaren bikoitza), lan egiteko adin minimo baten beharra (haurrek lan egin ez zezaten), soldata gero eta duinago bihurtzea (gutxieneko soldata bat ere ezarriko zen), segurtasun-neurriak eta beste lorpen batzuez jabetu ziren beharginak, esaterako gaixorik jartzen zirenean medikua izateko eskubidea (gizarte-segurantzaren oinarrian egongo ziren lehenengo kontsultategi mediko horiek).

Baina horiek lortzea ez zen erraza izan, eta ez zen egun batetik bestera gertatu, XIX. mendean zehar asko izan dira langile-borrokaren adibideak. Greba asko antolatu ziren, eta beren lanaz profitatzen ziren ugazaba manipulatzailen aurka matxinatu ziren langileen kontra errepresioa basatia izan zen arren, sindikatuetan antolatu eta beren eskubideen alde gogor lan egiten zuten, Marx eta Engels bezalako teorikoen ideiak bereak eginez. Langile askok bizia galdu zuten bidean, gaur egun funtsezkotzat jotzen ditugun eskubideen alde borroka horretan galdu ere.

3. Gaurko egoera: hobetu beharra

Gaur egun, berriz, langileen oinarriko eskubideak onartzen diren gizarte batean lan egiten dugu (Lehenengo Mundua deiturikoan, herrialde

garatuetan, bizi garenok, behintzat), eta ez da horien defentsan egunero borrokatu behar. Lanak, beharrak, ere arinagoak dira lehen baino, ez ditugu harriak garraiatu behar, eta lan asko ordenagailu baten aurrean eserita egin daitezke, antza oso erosoak diren baldintzetan. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar nola heldu garen egoera honetara, eta oraindik badaudela konpondu beharreko lan-sistemak diruen akatsak edo arazoak.

Aurrerapausoen artean, lan-merkatura heldu ezin dutenen babes-sistema dugu. Lehen, norbaitek ezin bazuen lan egin edo ezgai geratzen bazen, ez zuen baliabideak lortzeko beste biderik eliza aurrean eskatzea baino, eskale moduan bizitzea alegia. Gaur egun, gaitasun gutxiko pertsonak lanean integratzeko bideak ere badaude, eta, ezgai direnentzat gizarte-segurantzak gutxieneko baliabideak eskaintzen ditu (batzuetan nahikoak ez diren arren)...

Lan-istripuen alorrean aurrera egin den arren, badaude oraindik arriskutsuak diren lan gogorrak gaizki ordaindutakoak, eta segurtasun-neurri nahikoak bete barik egindakoak, esaterako eraikuntzan, non lan-istripuen kopuru altuena gertatzen da oraindik..., eta hau adibidea baino ez da. Beraz, historian zehar lan-egoerak hobetu diren arren, badaude oraindik hobetu beharreko aspektuak...

Zalantzarik gabe, oraindik hobetu beharreko atal bat, lantokian norberak izan behar duen segurtasunarena da, lan-mota guztietan, ez soilik eraikuntzan edo antzeko behar arrikustuetan. Langileek eroso sentitu beharko lukete bere lantokian, zentzun guztietan. Esaterako, emakumeei dagokienez, hor dago sexu-jazarpena. Nire ustez, ezin da onartu halako egoera, horrek eragin txarra baitu langilearen animoan eta bizitzan, lan egitera joateko gogorik uzteaz gain, besteekiko harremanetan – familia-eralazioetan barne- ere kalte egiten baitu jazarpenak. Gainera, inork ez du eskubiderik beste baten gainean halako presioa egiteko. Emakumeen lanari dagokionez, hori ez da konpondu beharreko auzi bakarra, hor baitago gizonetikiko soldataren diferentzia injustua: emakume edo gizona izanda, lan berbera berdin ordaindu beharko litzateke, era berean promozionatzeko aukerak berdina izan beharko lirateke... Hau da, beraz, konpontzeke dagoen beste arazo bat.

Beste aldetik, etorkinen lan-egoera dugu. Gure gizartean babes gutxi duen populazio-sektorea. Jende asko gure herrietara heltzen direnean etorkinen ilegaltasun-egoeraz baliatzen dira, eta morroi moduan erabiltzen dituzte; zentzu horretan, etorkinen egoera eta Egipto edo Erromako esklaboek pairatzen zutena antzekoak dira.

Horrekin lotuta -eta gure gizarte garatuan gertatzen ez den arren, gure bizimoduak bai eragin

zuzena du horretan-, haur esklaboen adibidea dugu. Tailer ilegaletan lan egiten dute ume horiek, lanaldi luzeak egin ere eta askotan ezer kobratu gabe, edo janariaren truke besterik ez... Poliziak halakoren bat ixten duen arren, beste askok jarraitzen dute... oso langileria merkea eta erabilerraza da, eskubiderik gabekoa, iraultzeko kapaziterik ez duena. Beraz, toki guztietan –gauzak hobetu diren arren- ez da lan duina lortu. Umeen kasuan gu ere erantzuleak gara, eta horren aurka badaude merkataritza justua bultzatzen duten erakundeak, hau da, ume langileak erabiltzen ez dutenen produktuen salerosketa promozionatzen dutena.

Horrek guztiak agerian uzten du oraindik baditugula gauzak hobetu behar lanaren munduan.

4. Krisi ekonomikoa eta langabezia

Ezin amaitu lan baldintzen historiari buruzko lantxo hau gaur egun bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren egoera aipatu gabe. Gaur egun mundua, bereziki lehenengo mundu hau, krisi ekonomiko handia pairatzen ari da. Nazioarte mailan garatzen ari den krisialdia 2008. urtean hasi zen, eta batzuek hobera egin dugula dioten arren, ez da gehiegi nabaritzen hobekuntza. Krisiak faktore askok eraginda izan da, baina bereziki kontsumoan eta diruan oinarrituriko eredu ekonomiko baten porrotaren ondorioa da, aditu batzuek ziurtatzen dute bankuek eta espekulazioak, baita eraikuntzan oinarrituriko aberaste errazak eragindakoa dela krisia.

Baina nork edo zerk eragin duen argi ez badago ere, bai efektuak, eta horien artean langileengan eragin zuzena izan duena: langabezia. Krisian daramagun bi urte luze hauetan, enpresa askok enplegu-erregulazioko espedienteak egin behar izan dituzte, eta ondorioz, langileak kaleratu. Baina kaleratuen kopurua gora doan heinean, lantoki batera heltzeko aukerarik ez duenena ere bai. Hau da, alde batetik, enpresa batzuek langileak botatzen dituzte, eta bestetik badaude langile berriak kontratatatu ezin dituztenak, eta, ondorioz, langabezia-tasa gorantz egiten du etengabe.

Horretaz gainera, lan-kontratuen iraupena gero eta laburragoa da, eta lanpostu finkoa izatea oso pertsona gutxik lortzen dute. Egon badaude ere, lanpostua ez galtzeko, soldata jaitsi behar izan dutenak edo kobratu barik lan egiten jarraitzen dutenak, etorkizunean, gauzak hobetzen direnean lan-saria eskuratuko dutelako esperantzatz.

Hori dela eta, esan dezakegu, krisi-egoera honen ondorioz, atzera egin dugula, bereziki lan-egoerari dagokionez, eta ahaztuta genuen errealtate batera itzuli garela. Pertsona askok edozein lan onartu behar dute aurrera ateratzeko, familia zaintzeko eta elikadura eta oinarriko baliabideak lortzeko,

eta, nahiz eta *INEM* bezalako erakundeak egon – eta langabezia dagoenak hilabete batzuek dirua jaso ahal duen arren, langile autonomoa ez bada, behintzat-, langileek askotan edozein lan-egoera onartzen dute soldatarik gabe gelditu baino lehen, baldintzak oso kaskarrak izanda ere.

5. Ondorioak

Ondorioz, esan dezaket, lanaren historian aldaketa asko egon direla, onerako gehienak, baina okerrera ere batzuetan. Dena den, baikorra naiz eta uste dut gero eta lan-baldintza hobekak izango ditugula, erosoago eta seguruago lan egingo dugula etorkizun hurbil batean. Hala ere, langileen egoerez probetxua atera nahi izango dutenak egoten jarraituko da, agintzeko ahalmena eta gogoia dituztenak, eta horiek besteak esklabo moduan menperatzen saiatuko dira, baina akaso hori oso geroko urrunean gerta liteke, beharbada errobotek eta makinek menperaturiko mundu batean.

Bitartean, eta iragarpen ezkorrenak gerta ez daitezen, orain pairatzen ari garen krisialdi sakon eta, antza, luze honetatik atera beharko dugu. Nire iritziz, politikoez irtenbide efektibo bat aurkitu beharko lukete, ez bi edo hiru hilabeteko soluzio partzialak. Soluzio horiek bereziki eragina izan behar dute okerren daudenengan: langabetuengan, etorkinengan, eta bazterketa sufritzen dutenengan. Alde batetik, haientzako espresuki sorturiko plangintzak abian jarri beharko lirarteke, eta, bestetik, iraunkorrak diren laguntzen sistema bat eratu, gutxieneko bizi-baldintzak ez ezik, duineko soldata bat ere jaso dezaten, bizi-irautea baino gehiago nahi duen langileak, pertsonak, gizon-emakume osoak izateko aukera izan dezaten/dezagun.

6. Bibliografia

- Alvarez Dorronsoro, Javier. “El trabajo a través de la historia”. La concepción del trabajo. *Cuaderno de Materiales*, 9. <http://www.filosofia.net/materiales/num/numero9a.htm>.
- Gómez, Manuel V. (2009-9-20): “Dos años de crisis y paro”. *El País* http://www.elpais.com/articulo/economia/anos/crisis/paro/elpepieco/20090920elpepieco_3/Tes/.
- Historia de Egipto. *Wikipedia*. <http://es.wikipedia.org/wiki/Egipto#Historia>.

Haritz Idiondo Gutiérrez

Aixerrota BHIko ikaslea



Kezkak argitzen / Aclarando dudas

Galdera: *Gipuzkoako Ostalaritzako zerbitzari batzuek asteen 6 egunetan egin ohi dute lan, astelehena euren jai eguna izaki, eta hilean behin asteburu bat libre dutelarik (aste horretan ez lukete asteko jai egunik izango). Bidezkoa al da, erregulazioa aldatu eta soldata beraren truk, hilabetean bi asteburu jai izatea, baina gainerako asteetan jai egunik ez izatea? Hilabetean sartzen den ordu kopurua handitu egiten da, bestalde, lan egiten diren igande eta asteburuak gutxiago dira.*
A.G. (Gipuzkoa). Lehenengo Mailako ikaslea.

Erantzuna: Kasu honetan, Gipuzkoako Ostalaritza sektorearen testuinguruan, aste bakoitzeko atsedena antolatzeko modu zehatz baten bidez kotasunari buruz galdetzen da.

Galderari behar bezala erantzuteko, lehenengo eta behin, asteko atsedenera dagokionez, esan behar da hasierako egoera ez dela zuzena. Hau baieztatzeke, arau desberdinak begiratu beharko dira. Arau orokorrak (Langile Estatutuaren 37.1 artikulua) atsedenera-aldi gutxienerako egun bat eta erdikoa izan behar dela esaten du, hau da, lau asteko epe batean, gutxienez, sei egun. Komenigarriena, atsedenera horretan igande osoa,

eta larunbat arratsalde edo astelehena goiza egotea litzatekeela esaten da, baina benetan azken antolaketa hau ez da derrigorrezkoa. Galdetzen den testuinguru konkretuari begiratu, Gipuzkoako Hitzarmen kolektiboak ondokoa arautzen du: "Asteko atsedenera egun t' erdi efektibokoa izango da." Bestetik, egia da, 1561/1995 Errege Dekretuak lanaldi berezietan buruzko erregulazioa ezartzen duenean, ostalaritzaren kasurako, aste bakoitzeko atsedenera egun erdiak, hitzarmenez edo paktuz, lau astetako epe batean bildu daitezkeela esaten duela, beste egunetik banaturik gainera.

Gauzak horrela, 3 astetan zehar astero egun bakarra jaia izanik, astelehena, eta hilean behin atsedenerako asteburu oso bat gehituz, guztira 5 atsedenera-egun dira eta ez 6, legezko den bezala. Bestetik, geroago proposatzen den sistema ez da ere egokia, eta atsedenera kopuru aldetik, txarragoa gainera. Bi asteen behin asteburu libre izatean guztira 4 egun dira, hau da, legezkoa baino bi gutxiago. Arazoa konpontzeko aukera bat, asteburu osoa libratzen ez den asteetan beste egun bat libre ezartzea litzateke.

GAZTELAN aldizkariko Idazlari Taldea



Galdera: *Neska bati, enpresa batean aldi baterako kontratuak egiten dizkiote noizbehinka. Oraingo honetan hiru hilabeterako eduki du, baina beste baja bat sortu denez, bere kontratuari uko egiteko esan diote eta horren ordez beste bat egingo diotela g hilabeterako. Guzti hau aurrera eramateko, aste baterako langabezira bidaliko dute eta ondorioz bere oporraldia hartzeko eskubidea galduko du, nahiz eta enpresarengatik egin dion uko kontratu zaharrari. Legezkoa al da hainbeste kontratu egitea? Legezkoa al da norbait aste baterako parora bidaltzea eta kalte-ordainik ez jasotzea?*
E.E. Lehenengo Mailako ikaslea.

ERANTZUNA: Enpresa berean pertsona bati aldi-baterako kontratuak noizbehinka egitea gauza arrunta edo ohikoa da. Aurkezten zaigun kasuan ez zaigu zehazten zein motatakoa den 3 hilabetetako kontratu hori, beraz ebentuala (Langileen Estatutuko –LE-15.1 b) art.) izan daitekeela pentsatu dugu (baina ordezkapeneko ere izan daiteke [LEko 15.1 c) art.]). Kontratu horren arabera, lanean dabilela beste proposamen bat egin diote: uko egin diezaiola hiru hilabeteko kontratuari g hilabeteko ordezkatze-kontratu sinatzeko, baina horretarako aste bete egon behar da lan egin gabe uko egitearen eta berria sinatzearen artean.


Posible da langileak uko egiteagatik kontratua bertan behera uztea, beti ere, enpresariari alde aurretik jakinarazten badio (LEko 49.1 d) art.). Baina bere borondatez uko egiten duenez (kontratua bukatu baino lehen alde egin duelako) ez dauka aldi-baterako kontratuaren

amaieragatik dagokion kalteordaina jasotzeko eskubiderik (LEko 49.1 c) art), ezta ere LEko 50.2 eta 56.1 artikuluek (langilearen borondatez kontratu-amaiera arrazoidunagatik edo bidegabeko irazpenagatik) arautzen dituzten kalteordainak jasotzeko.

Bestalde, desenpleguko prestazioak jaso ahal izateko “legalki desenplegu egoeran” egon beharko litzateke, baina kasu honetan kontratuari uko egin dionez ezin da legalki desenplegu egoeran egon (625/85 EDko 1. art.) eta ondorioz ezin izango luke honelako prestaziorik jaso.

Aldiz, oporrei dagokienez ez du bere eskubidea galduko: lan egindako denborari dogokion oporraldia izango du. Hala ere, mota honetako kontratuetan ohikoa izaten da oporrak “ordaintzea”.

Laburbilduz, legezkoa izan daiteke hainbeste aldi-baterako kontratuak egitea, baina zuzentasun osoz erantzun ahal izateko datuak falta zaizkigu (zenbat kontratu izan diren, zein motatakoak, zein iraupenekoak, zenbateko epean egindakoak diren, etab.). Adibidez, kontuan hartu behar da 30 hilabeteko epe baten barruan pertsona bat enpresa berean eta lanpostu berean 24 hilabetez lanean aritu bada (nahiz eta aldi-baterako kontratu desberdinekin izan, edo nahiz eta zuzenean kontratatua ez izan, adibidez ETT baten bitartez), pertsona hori enpresako langile finkoa bihurtuko dela (LEko 15.5 art.).



Zure eskubideak / tus derechos

Posta elektronikoz jasotako ikasle batzuen galdera abiapuntutzat hartuz emandako azalpenak:

Un alumno nos pregunta si un trabajador a media jornada diaria sólo tiene derecho a la mitad del descanso semanal. En concreto, según nos dice, sólo se le quiere conceder la mitad del día y medio de descanso.

En este caso se trataría de un trabajador a tiempo parcial, ya que realiza una jornada inferior a la habitual en el ámbito de producción que corresponda. Tal y como especifica el art. 12.4.d) del Estatuto de los Trabajadores estos trabajadores tienen los mismos derechos que los trabajadores

a tiempo completo. Rige en estas situaciones, por tanto, el principio de igualdad, salvo en aquellos aspectos, como el salario, en los que se debe acudir a un criterio de proporcionalidad.

Por consiguiente, este trabajador a tiempo parcial posee el derecho al descanso semanal legal o al pactado en convenio colectivo, en su caso, sin que sea aceptable su reducción a la mitad bajo el argumento de su menor jornada diaria.

Consejo de Redacción de GAZTELAN
